

COVID eraginei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak argitaratu dituen laguntzak.

Eusko Jaurlaritzak abeltzain sektoreak bizi duen egoera larriaren aurrean, dirulaguntzak onartzea erabaki du eta hau litzake, ENBAko teknikariek prestaturiko laburpena.

Azienda	UGM	Buruko / Laguntza
Esne behiak *	1,00	270 euro
Haragitarako behiak *	1,00	100 euro
Gizentzeko behiak *	1,00	100 euro
Ardiak *	0,20	7 euro
Ahuntzak *	0,25	9 euro
Txerri eme ugaltzaileak	0,20	24 euro
50 kgtik gorako gizentzeko txerriak	0,10	9 euro
Landako oilo erruleak	0,013	1 euro
Oilo erruleak (gainerakoak)	0,010	0,675 euro
Baserriko edo landako gizentze- oilaskoak	0,010	0,45 euro
Gizentzeko oilaskoak (gainerakoak)	0,005	0,30 euro
Untxi eme ugaltzaileak	0,20	2 euro
2 urtetik gorako zaldi-behorrak	0,667	50 euro

- **Dirulaguntzak eskatu ahal izateko, gutxieneko kopuruak** behar dira: 10 behi, 50 ardi, 40 ahuntz, 50 txerri eme, 100 gizentzeko txerri, 750 landa oilo, 1.000 gainerako oiloetan, 1.000 gizentzeko baserriko oilaskoak, 2.000 gizentzeko gainerako oilaskoak, 50 untxi eme eta 15 zaldi-behor eta azkenik, Espezie ezberdinak dituzten baserrien kasuan, gutxienez 10 UGM izan beharko dira eta horretarako kalkuluak egiteko, taulan jasotzen diren UGM baliokidetasun baloreak erabiliko dira.

- Goiko taulan asteriskoarekin (*) agertzen diren azienda kasuetan, 2020ko PAC eskabidean laguntza akoplatua jaso zuten buruak izango dira kontuan eta beste gainuntzekoan, Foru Aldundiko erroldan agertzen diren buruak.

- Goiko taulan agertzen diren oinarrizko laguntzaz gain, **laguntza osagarriak** izango dira:

- + %10ekoa, titularra emakumezkoa bada eta elkarteen kasuan, erdibana edota parekoa.
- + %10ekoa, titularra gaztea bada, eta elkarteen kasuan, erdibana edota parekoa.
- + %5ekoa, ekoizpen ekologikoa edota kalitatezko markatan badago (IGP, Eusko Label, ...)

+%5ekoa bere ekoizpena eraldatzen duten baserrietarako eta dagokion erregistroan agertu behar du.

- Aurreikusten diren laguntza osagarriak metagarriak dira, baldin eta baserriak, baldintza bat baino gehiago betetzen baditu.

- 300 eurotik beherako eta 150.000 eurotik gorako laguntzarik ez da emango.

- Eskabideak aurkezteko epea, bihar, Urriak 30ean zabalduko da eta amaitu, berriz, diruak agortutakoan, edo bestela, Azaroaren 19an. Eskabideak iritsi ahala, ebazten joango dira, diruak amaitu arte.

- Eskabideak egiterakoan papereren bat faltaz gero, Jaurlaritzak jakinaraziko zaitu 10 egun balioduneko epea duzula, falta dena aportatzeko.

- Eskabideak egiteko:


- Pertsona fisikoa izanik:

+ Bide elektronikoa www.euskadi.eus bitartez. Eskabide bide elektronikotik eginez gero, ondorengo jakinarazpen eta harreman guztiak elektronikoak egingo dira Jaurlaritzako webgunean agertzen den "Nire Karpeta" bitartez.

+ Aurrez aurre, www.euskadi.eus gunean inprimakia bete, inprimatu, sinatu eta Eusko Jaurlaritzako egoitzan entregatu (Donostianko Andia Kalea, 13)

- Pertsona juridikoa izanik:

+ Bide elektronikoa www.euskadi.eus bitartez. Eskabide bide elektronikotik eginez gero, ondorengo jakinarazpen eta harreman guztiak elektronikoak egingo dira Jaurlaritzako webgunean agertzen den "Nire Karpeta" bitartez.



* Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala / 2021-10-29.

* Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, deitu lasai Tolosako bulegora. (943.650123)